

HITZ-ELKARKETA/3

Aurkezpena

Durango, 1991-XII-8

Miren Azkarate

Hitz-elkarketa/3 liburuaren aurkezpena egin zuten Durangoko Azokan LEF batzordeko kide diren Miren Azkaratek eta Mikel Zalbidek. Lehen partean liburuaren edukinaz aritu ziren, LEF batzordeak 1988ko irailean eta azaroan Gernikan eta Uitzin egindako Jardunaldietan aztertu zituen txostenak jasotzen direla azalduz; hamabi hitz elkartu mota guztira.

Hitz-elkarketa/1-ean bezala, hemen ere batzordeak hitz elkartu mota horiek aztertzeke baliatu duen adibidetegia osorik eskaintzen zaio irakurleari liburuaren bigarren partean.

